

Zabaldutzen du, zabaldu beza
 Alemaniyan fedia,
 Iriki zuben, iriki beza
 Bretaña aundira bidia:
 Salbatu beza ¡ai! ¡ai! Irlanda
 Irlanda doakabia,
 ¡Bedeinka beza doai santubaz
 Euskaldun erri beria!

Onenbestekin agurtutzen det
 Aitacho maite maitia,
 Agurtutzen det pozaz negarrez
 Bedorren Santidadia:
 Naizelarikan beartsuba ta
 Doaikiñikan gabia,
 Beiñtzat biotzez bukatzen diyot
 Nere ezerezkeria.

AZKARATE-KO RAMOS-EK.

LEON XIII-GARRENARI.

Aberastasuna, jakindea, podorea eta gizonen indar guztiyak jaiki dira menalde ikaragarriyan, Jesukristoren eta zure jainkozko jabetasunaren kontra, eta bota dute beren sumiñean emaezgarri eta guziakiko deadar bat: Ez geyago legerik, ez geyago eleizarik, ez geyago Jainkorik.

PRANCHISKU MINTEGIAGA-KOAK.

ERROMA ETA EUSKAL-ERRIA.

Erromaren eta Euskal-erriaren otoitzak baturik, Zerura igo bitez.

JOSÉ IRASTORZA.
